

Hitzordu

Apirilaren 2a: Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna



Luis Alonso

Hans Christian Andersen idazle danimarkarra apirilaren 2an jaio baitzen, IBBY erakundeak (International Board on Books for Young People) Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen du. Urtero, IBBY osatzen duten herrialdeetako batek ospakizuna iragartzen duen kartela eta munduko haur guztiei zuzenduriko mezua prestatzen du, aurtan Brasili egokitu zaiolarik.

Galtzagorri Elkartek ere, Euskal Herrian IBBYko ordezkari bat betetzen duen neurrian, egun hau ospatu zuen Donostiako Fermin Kalbeton kalean dagoen Liburutegi Nagusiaren Haur Sailean. Egund hartan, “Ahatekume itsusia” ipuinaren irakurketa publikoa egin zuten Galtzagorri Elkarteko zenbait kidek, irakurketaren bukaeran zozketa bat egin zelarik. Zozketa hau 2004ko apirilaren 2ko ekitaldian aurkeztuko dugun liburu baten sorkuntzan parte hartzeko zen, bertan “Ahatekume itsusia”ren bertsio ezberdinak bilduko zirelarik. Zozketa haren bitartez, Jon Zabaleta irudigilea eta Yolanda Arrieta idazlea suertatu ziren irabazle.

Ekitaldi honen osagarri gisa, Galtzagorri Elkartek “Ahatetxo itsusia” izeneko ilustrazio lehiaketa bat antolatu zuen Haur eta Lehen Hezkuntzako

ikasleen artean, ipuinaren irakurketa egin ondoren gauzatu behar zena eta oso harrera ona izan zuena (5 udal liburutegik eta 11 ikastetxek parte hartu zuten, guztira 1.262 ilustrazio aurkeztu zirelarik). Lehiaketa hiru kategoriatan banatuta zegoen:

- 1) Haur hezkuntza.
- 2) Lehen Hezkuntzako 1, 2 eta 3. mailak
- 3) Lehen Hezkuntzako 4, 5 eta 6. mailak.

Hauek izan ziren parte hartu zuten liburutegiak eta eskolak:

Eibarko udal liburutegia • Berrobiko udal liburutegia • Usurbilgo udal liburutegia • Altzoko udal liburutegia • Artziniegako udal liburutegia • Aguraingo Pedro Lope de Larrea ikastola • Deustuko ikastola • Tolosako Laskorain ikastola • Aretxabaletako Kurtzebarri eskola • Gareseko eskola • Berastegiko Muñagorri eskola • Lasrteko Landaberri ikastola • Ikaztegiako herri eskola • Duranako Ikasbidea ikastola • Arroa Behea-Zestoako eskola • Idiazabalgo Aita Iparragire herri eskola

Epaimahaia Elena Odriozola, Iñaki Martiarena, *Mattin*, eta Lorena Martinez irudigileek osatzen zuten. Kategoria bakoitzeko irabazle bat aukeratu ezinean, hona hemen marrazkirik ederrenen, adierazkorrenen eta irudimentsuenen egileen izenak:

HAUR HEZKUNTZA



Jone Toña
Artziniegako udal liburutegia



Igor Ugarte
Gareseko eskola



Maria San Roman
Gareseko eskola

LEHEN HEZKUNTZA 1, 2, 3. mailak



Irati Ramirez
Aguraingo Pedro Lope de Larrea ikastola



Iñigo Rodriguez Navas
Lasarteko Landaberri ikastola



Iker Berakoetxea
Tolosako Laskorain ikastola



Jon Bombin
Duranako Ikasbidea ikastola



Olaia Arakolain
Tolosako Laskorain ikastola



Aitor 6 urte
Tolosako Laskorain ikastola



Jon Llanderas
Lasarteko Landaberri ikastola



Ane Bobadilla
Lasarteko Landaberri ikastola



Alex Altuna
Lasarteko Landaberri ikastola

Datorren apirilaren 2ra arte!

Apirilaren 2ko mezua liburuak: Mundua sare liluratu batean

ANA MARIA MACHADO. BRASIL

Ni, artean, txikia nintzen, ez dakit seguru zenbat urte izango nituen.

Gauza batez bai oroitzen naiz: nire aitaren idazmahaiaren pare-ra ailegatzeko bezain luze banintzela, eta altzariaren gainean besoak jazarri eta haien gainean atsedena ematen niola nire matrailari. Justu begien parean brontzezko estatua bat geratzen zitzaidan: gizon mehar bat zen, eskuan lantza bat zeukana eta hezur hutsezko zaldi baten gainean zegoena, atzetik asto bat, zeinaren gainean lagun potolo bat baitzegoen, besoa luzaturik kapelu bat jasota zeukana bibaka eginez.


Nire galdera bati erantzunez, aitak biak aurkeztu zizkidan:

—On Kixote eta Santxo Pantza.

Nortzuk ziren eta non bizi ziren jakin nahi izan nuen. Horrela jakin nuen espainiarrak zirela, eta orain mende asko etxe liluratu batean, hots, liburu batean bizi zirela. Aitak berehala utzi zuen egiten ari zena, eta apalategira joan, handik liburu bat hartu eta hango irudiak erakusten hasi zitzaidan, bi haien historia kontatzen zidan bitartean. Irudietako batean On Kixote liburuz inguratuta ageri zen.

—Eta nor bizi da liburu horietan? —galdetu nion nik.

Erantzun bezala, ohartzen hasi nintzen era guztietako liburuak zeudela eta haien barruan infinitua bizi zela. Handik aurrera eta gurasoen eskutik haietako batzuk ezagutzen joan nintzen: Robinson Crusoe bere irlan, Gulliver Liliputen eta Robin Hood bere basoan. Eta ohartu nintzen



maitagarriak, printzesak, erraldoiak eta iratxoak, errege-erreginak eta sorginak, hiru txerrikumeak eta zazpi antxumeak, ahartetxo itsusiak eta otso gaiztoak, nik entzuten nituen istorioetako ezagun zahar horiek guzti-guztiak ere liburuetan bizi zirela.

Irakurtzen hasi nintzenean neu pasatu nintzen liburuetan bizitzera. Mundu osoko herri ipuinetako pertsonaiak ezagutu nituen, Txinatik Irlandarako eta Errusiatik Greziarako joan-etorriak eginarazi zizkידaten bildu-

men bidez. Monteiro Lobatoren liburuetan hainbeste murgildu nintzen, non esan baitezaket okil horiaren baserrira, bere istorioak gertatzen diren tokira joan nintzela bizitzera. Ni han bizi nintzen. Lurralde aske eta mugarik gabea zen hura. Erraztasun berdinarekin bizi ahal izan nintzen Mississipin Tom eta Huckekin, Frantziatik barrena D'Artagnanekin zaldi gainean ibili, Bagdadeko azokan Aladinorekin galdu, Sekula Santaneko Lurrerantz Peter Panekin hegan joan, Suedia gainetik Nilsekin antzara baten gainean hegan egin, Alicerekin koneju baten gordelekutik behera jaitsi, Pinoccioarekin batera bale batek irentsia izan, Moby Dickeri segika ibili Ahab kapitainarekin batera, zazpi itsasoetatik barrena nabigatu Blood kapitainarekin, altxorak bilatu Long John Silverekin, munduari bira egin Phileas Foggekin, Txinan urteak igaro Marco Poloarekin, Afrikan bizi Tartzanekin, mendi gailurretan Heidirekin, zelaitxo batean dagoen etxetxoan Ingalls familiarekin, neskato txiki bat izan Londresko kaleetan Oliver Twistekin eta Parisen

Cosette eta zoritzarrekoekin, sute batetik ihes egin Jane Eyrekin, Bihotzeko eskolara joan Enrico eta Garronerekin, Indian gizon santu bati segitu Kimekin, idazle bat nintzela amestu Jo Marsh maitearekin, Hondarreko Kapitainen taldeko kide izan nintzen Pedro Balarekin Bahiako landetan zehar eta handik aurrera pertsona helduen gero eta liburu gehiago irakurtzen joan nintzen.

Hori bezain erraza izan zen. Geografia eta adin mugarik gabe. Dena zegoen elkarrekin komunikatua, etxe liluratu sare bat bailitzan.

Eta hainbeste mundurekin, neure munduak eraikitzen joan nintzen. Eta idazten ditudan liburuen bidez nire barruan bizi den guztia besteekin partekatzen dut.



Luis Alonso

Biltzarra: Abentura Liburuak Congreso: Libros de Aventuras

2003ko azaroaren 13, 14, 15 Gasteizko Goiuri Jauregian 13, 14 y 15 de noviembre de 2003 en el Palacio Villa Suso de Gasteiz.

Antolatzailea/Organiza: Galtzagorri Elkarte.
943.47.14.87

Azaroak 13, osteguna / día 13, jueves
(19:30-21:30 horas)

- 19:00 Aukezpena/Presentación:
Erakundeak/Entidades:

Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco. Arabako Foru Aldundia/Diputación de Alava. Gasteizko Udala/Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. Galtzagorri Elkarte/Asociación Galtzagorri.

- 19:30 Sarrera hitzaldia/Conferencia inaugural:

Gemma Lluch: *Star war, una manera clásica de contar aventuras.*

- 20:30 Irakurketa zuzeneko musikarekin/Lectura con música en directo.

Patxi Zubizarreta. Jabier Muguruza: 28 letra eta 7 nota munduari itzulia emateko (*La vuelta al mundo en 28 letras y 7 notas*).

Azaroak 14, ostirala / día 14, viernes
(9:30-14:00; 16:00-20:00)

- 9:30 Hitzaldia/Conferencia:
Teresa Colomer: *Aventuras del siglo XX.*

- 11:00 Hitzaldia/Conferencia:
Joanes Urkixo: Heroiaren bidaia (El viaje del héroe).
- 12:30 Hitzaldia eta diapositibak/Conferencia y proyección de diapositivas:
Teresa Duran: La viva estampa de la aventura.
- 14:00 Bazkaria/Comida.
- 16:00 Hitzaldia/Conferencia:
Marta Gomez Mata: La edición de los clásicos de aventuras.
- 17:30 Hitzaldia/Conferencia:
Emilio Pascual: En el principio fue la aventura.
- 19:00 Ipuin kontalariak/Cuentacuentos: **Oihulari Klown.**
- 20:00 Haur eta gazte literaturaren alorrean euskarara egindako itzulpenik hoberenentzako «Vitoria-Gasteiz 2002» sariaren banaketa/Entrega de los premios «Vitoria-Gasteiz 2002» a la mejor traducción al euskara de literatura infantil y juvenil.

Azaroak 15, larunbata / día 15, sábado
(9:30-14:00)

- 9:30 Hitzaldia/Conferencia:
Aingeru Epaltza: Etxean neukan Yukongo urre guztia (Tenía en casa todo el oro de Yukon).
- 10:30 Hitzaldia/Conferencia:
Marilar Aleixandre: Incertidumbre, riesgo, conflictos familiares: la raíz de la novela de aventuras.
- 11:30: Hitzaldia/Conferencia:
Jesús Ballaz: Los libros de aventuras en la construcción de imaginarios simbólicos.
- 13:00 Mahaingurua/Mesa redonda:
Aingeru Epaltza, Marilar Aleixandre, Jesús Ballaz.
- Euskaraz emandako hitzaldiek aldi bereko itzulpena izango dute gaztelaniara.
- *Las conferencias impartidas en euskara tendrán un servicio de traducción simultánea*



Luis Alonso

- * **Ondarrun Ipuinez ipuin** (2003ko urri osoan)
- * **Legazpin ere Ipuinez ipuin** (2004ko apirilak 19 maiatzak 14)
- * **Berako Kultur etxean Irudigileena** (2003ko abenduak 5 2004ko urtarrilak 3)

«Haur Poesiaren Aretoa»

Ibilbide arrakastatsu baten urratsen atzetik

Ondoko koadroan, Haur Poesia erakusketa-
ren itinerazio datak eskaintzen dira. Dakizunez
Poesia aretoa joan den urtean sortu genuen, ba-
tetik genero hau hobeto ezagutzera emateko eta,
bestetik, haurren artean poesiarekiko zaletasuna
bultzatzeko. Aurtengoan Gipuzkoako Foru Al-
dundiaren laguntza dela medio, helburu bera
buruan dugula erakusketa hau Gipuzkoako be-
deratzi herri desberdinetako liburutegietan izan-
go duzue ikusgai, 2003-2004 ikasturtean zehar:

LIBURUTEGIA	HASI	BUKATU
Tolosako Haur Liburutegia	Urriak 1	Urriak 31
Legazpi	Azaroak 1	Azaroak 30
Ernest Lluch (Amara, Donostia)	Abenduak 1	Urtarrilak 2
Errenteria	Urtarrilak 7	Urtarrilak 30
Ordizia	Otsailak 2	Otsailak 27
Zarautz	Martxoak 1	Martxoak 19
Oñati	Martxoak 22	Apirilak 2
Hondarribia	Apirilak 5	Maiatzak 4
Hernani	Maiatzak 5	Ekainak 4

Erakusketa honetan herrietako liburutegi eta
ikastetxeen artean aurretik adostutako haurren-

tzako bisita gidatuak izango dira. Hala ere, ikusi
nahi duen guztiak aukera izango du bertara hur-
bildu eta erakusketak eskaintzen dituen aukera
guztiz gozatzeko. Bestalde, Juan Kruz Igerabi-
de eta Oihane Igerabide harpa-joleak erakusketa
honetarako bereziki prestatutako errezitaldia ere
edonorentzat izango da irekia. Saio honen estre-
inaldia Tolosako Haur Liburutegian izango da
urriaren 24ean (ostirala) arratsaldeko 18.00etan.

Ekainetik aurrera erakusketa hau alokatzeko
aukera izango duzue interesik izanez gero, horre-
tarako gure bulegora deitze baino ez duzue:
943471487

Azkenik aipatu, erakusketa honetarako Itziar
Zubizarretak, Elena Odriozolak eta Aitziber Alo-
nsok prestatutako poesia kuadernoak eta Miren
Agur Meabe, Joxan Ormazabal, Julia Marin eta
aurretik aipatutako hirukoteak sorturiko cd-ak
eskuratu nahi izanez gero gure bulegora deitu edo
bertara hurbildu zaitezkeela.

Besterik gabe, erakusketan elkar ikusiko du-
gulakoan agurtzen gara. *GALTZAGORRI ELKARTEA*



Luis Alonso



Luis Alonso

Liburu Gaztea 2002-2003

Aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Galtzagorri Elkartearekin lankidetzan,

Liburu Gaztea literatura sariarentzako deialdia zabaldu zuen 2000-2001 ikasturtearen hasieran irakurtzaletasuna sustatzeko asmotan. *Liburu Gaztea* programak euskal literaturan urtero burutzen diren beste sarien artean (Euskadi sariak, Lizardi, Labaien...) bat gehiago izan nahi du, baina berezitasun nabarmen eta garrantzitsu batekin: DBHko ikasleak izango direla epaimahaikide gisa urtero bi idazle sarituko dituztenak. Haur eta Gazte Literaturari dagozkion sari desberdinetan beti helduek daukate azken hitza, sariketa honen bidez berriz gazteei zuzendurikoa den literatura horretan beraien iritziak eta hausnarketak entzuteko aukera eskaini nahi da eta hori erabiliz beraien motibazioa landu eta haiengandik ikasteko aukera aprobetxatu. Azken urteko produkzioa sarituko duen literatur sari honek ondorengo helburuak ditu:

Helburuak

- Euskal Literaturaren produkzio berriena gazteengana hurbiltzea.
- Gazteen interesak, iritziak, literatur gustuak ezagutzea.
- Irakasleei literatur orientazioa eskaintzea.
- Ikasleengan irakurtzaletasuna landu eta irizpide literarioak sortzea.
- Idazleei irakurle gazteen ikuspegia hurbildu eta hauek emandako sari bat eskuratzearen ohera eskaintzea.
- Euskal Herriko ikastetxeetan irakurketa aldetik erabiltzen diren prozedura desberdinak ezagutzea eta hauek lantzeko tresna berri bat eskaintzea.

Jasotzaileak

Gipuzkoako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan B eta D ereduak dituzten ikastetxe guztiei luzatu zitzaien egitasmoan partehartzeko gonbitea (119 ikastetxe guztira). Orientatzaile batek

banaka bisitatu zituen ikastetxe guztiak egitasmoaren nondik norakoak azaltzen eta ikastetxera programa egokitzeko biderik aproposenak zein izan zitezkeen aztertzen. Honen emaitza ondorengoa izan zen:

2002-2003 ikasturtea

Ikastetxe kopurua 41

Bozketan parte hartutako ikasleak 4.394

Prozedura

Galtzagorri elkarteak izendatutako hautaketa batzordeak 2001an adin tarte honetarako argitaratutako liburu guztien irakurketa egin zuen. Irakurketa zerrendan jatorriz euskaraz sortutako liburuak nahiz itzulitakoak sartu ziren baina zerrendatik kanpo utzi ziren berrargitarapenak. Irakurketa horretatik

8 izenburuko zerrenda aukeratu zuen (ikus eranskinean zerrenda osoa). Adin talde bakoitzeko 4 liburu izanik, hau da, 12-14 urte bitarteko ikasleei bideratutako 4 eta 14-16 urtekoentzako beste hainbeste. Aditu batzordea pertsona hauek osatu zuten:

- *Felipe Juaristi*

Idazlea eta EIEko ordezkaria

- *Koldo Biguri*

Itzultzailea eta EIZIEko ordezkaria

- *Rosario Alza Eñeterreaga*

Irakaslea

- *Leticia Grandes Mateos*

Irakaslea

- *Alaitz Muro*

Pedagogoia

- *Leire Ugalde Lujanbio*

Pedagogoia, psikopedagogoia eta Galtzagorri Elkarteko idazkaria

Oinarriak

1. Ikastetxean, parte hartzen duten ikasgela guztiak dute botoa emateko aukera.

2. Talde bakoitzak dagozkion 4 liburuak irakurtzen ditu.

3. Ikasle bakoitzak irakurri dituen 4 liburuen artean gehien gustatu zaiona aukeratu dute. Horri emango diote botoa. Irakasleak egiten du ikasgela bakoitzari dagokion boto zenbaketa eta Galtzagorrira igortzen du.

4. Emandako puntuaketa Galtzagorri Elkarteari iritsarazten zaio, jaso duten **bozkatze orria** behar bezala betez.

5. Jasotzen diren bozkatze orrien artean **puntu bilketa** egiten da, **bozkatuena izan den liburua** finkatzeko.

6. *Liburu Gaztea* sarian parte hartu duen ikastetxe bakoitzak epaimahaikide izan dela ziurtatzen duen agiria jasoko du. Horretaz gain, parte hartu duten eskola guztien artean **Pariseran 5 egunetako bidaia bat** 30 ikaslerentzat (gehi bi begirale) eta **50 liburuko 2 sari** zozketatuko dira.

7. Bozkatuen izan diren liburuen idazleek aipamen berezia eskuratuko dute, horretarako **2003ko ekainaren 6an goizeko 11:30etan Gipuzkoako Foru Aldundian** egingo den sari banaketa ekitaldian.

8. Epaimahaikide gazteek bidaliko dituzten bozkatze orriak jasotzeko **epea**, 2003 urteko **maiatzaren 15a** izan da. Data horren ondoren jasotako orriak ez dira kontutan hartu eta ikastetxe horiek ez dute parte hartuko sarien zozketan.

9. *Liburu Gaztea* sariaren irabazlea **2003ko ekainaren 6an goizeko 11:30etan Gipuzkoako Foru Aldundian** egingo den **prentsurrekoan** ezagutaraziko da, sari banaketa ekitaldian.

Liburu bozkatuenak irakurleek beraiek osatutako **epaimahaiak** emandako sariaren ohorea izango du.

Eranskina

Liburu Gaztea 2002-2003

Aukeratutako liburuek jasotako boto kopuruak

DBH 1-2 (1. zikloa)

Izenburua	Egilea (Argitaletxea)	Puntuak
<i>Galtzerdi Suizida</i>	Mariasun Landa (Elkar)	465
<i>Errima errebeldeak</i>	Roald Dahl (Alfaguara/Zubia)	178
<i>Simonetta</i>	Asun Balzola (Elkar)	119
<i>Amodioaren gazi-gozoak</i>	Aitor Arana (Ibaizabal)	1.343

DBH 3-4 (2. zikloa)

Izenburua	Egilea (Argitaletxea)	Puntuak
Ispiluen gainean lotan	Jordi Sierra I Fabra (Elkar)	1.150
<i>Izarretara bidean zihuan txakurra</i>	Henning Mankell (Erein)	207
<i>Etokizunik ez</i>	Marilar Aleixandre (Elkar)	432
<i>Itsaslabarreko etxea</i>	Miren Agur Meabe (Aizkorri)	500



Luis Alonso

Idazle Gaztea

Oinarriak

Norentzat

Lehiaketan parte hartzerik izango dute Gipuzkoako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan ari diren ikasleek.

Sailak

Lehiaketak bi sail izango ditu: narrazio laburrak eta poesia. Ikasle bakoitzak gehienez lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Narrazio laburretan gehienez 3 orrialdeko (6000 bat letragune) lanak onartuko dira. Poematan, gehienez 90 lerroko lanak.

Kategoriak

Lehiaketaren sail bakoitzean bi kategoria bereziko dira: A kategoria, DBHko lehen zikloko ikasleena; B kategoria, DBHko bigarren zikloko ikasleena.

Lanak aurkezteko era

Lehiaketan parte hartzeko idazlanak ikastetxeak aurkeztu behar ditu, ikasleen izenean. Ikasgela bakoitzetik gehienez 5na idazlan onartuko dira sail bakoitzean.

Idazlanak aurkezteko epea 2003ko otsailaren 3an amaituko da.

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira, baina bidaltzerakoan egilearen izen-deiturak, ikas-tetxearen izena eta ikasmila ere azaldu behar dira. Datu horiek isilpean gordeko dira sarien erabakia aditzera eman arte.

Idazlanak posta elektronikoz bidali behar dira helbide honetara: idazlegaztea@idazlegaztea.org

Hautapena

Jasotako lan guztien artean 10 lan hautatuko dira sail eta kategoria bakoitzean. Hautapen batzordea osatuko dute Galtzagorri Elkartearen lau ordezkariak.

Bozketa

Batzordeak hautatutako lanak idazle gaztearen web orrian agertuko dira

<http://www.idazlegaztea.org>

2003ko martxoaren 4tik aurrera.

Webean sartzen diren irakurleek botoa eman ez auzeratu dituzte sail eta kategoria bakoitzeko hiru lan irabazleak. Pertsona bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izanen du, 2003ko maiatzaren 15a bitartean.

Sariak

Idazleentzat: lehiaketako sail eta kategoria bakoitzean sari nagusi bat eta bi sari osagarri izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak.

Irabazleen lanak Galtzagorriko webean argitaratuko dira.

Irakurleentzat: bozketan parte hartutako irakurleen artean sari bat zozketatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Saridunak 2003ko ekainaren 6an emango dira aditzera «Liburu Gaztea» programaren barruan Gipuzkoako Foru Aldundian egingo den saioan.

Aurkeztutako lanen zerrenda

Idazle gaztea A kategoria: *Narrazioa*

Egilea: Izenburua	Ikastetxea
1. saria Leire Etxabe Garaialde: Askatasuna	• Oianguren Ordizia
2. saria Maider Altuna Aierbe: Anubis	• Oianguren Ordizia
3. saria Ainara Aduriz Barrantes: Izarretara begira Amalur Santesteban Castro: Lau ispiluak Ane Beloki Galfarsoro: Martin Otsoa Jon Gofii Ugalde: Kanpalekuan abentura Monica Cobos Zamarreño: Miren eta Errobot	• Landaberri • Landaberri • Txingudi BHI • Txingudi BHI • Lezo Institutua

Idazle gaztea B kategoria: *Narrazioa*

Egilea: Izenburua	• Ikastetxea
1. saria Joana Azketa Matxain: Heriotza ate joka	• Oianguren Ordizia
2. saria Maddi Suarez Korta: Azken hatsa	• Haurtzaro Ikastola Oartzun
3. saria Irigo Gartzia Santamaria: Dena amaitu da Aitor Elizalde Elizetxea: Hilketaren lekuko bakarra Ander Lertxundi Zelarain: Emakumeen eldarnioak Idoia Iruretagoiena: Belarritakoak ala zapatak? Itxaso Carrizo Pelaez: Etsipenean murgilduta Jon Del Olmo Larrañaga: Sekretuak irakurtzen Nagore Márquez Barbarín: Itsas Urdina, Itsas Beltza Olaita Susperregi Irigorri: Galdutako irribarrea	• Haurtzaro Ikastola Oartzun • Axular Lizeoa • Axular Lizeoa • Salbatore Mitxelena Zarautz • Haurtzaro Ikastola Oartzun • Haurtzaro Ikastola Oartzun • Pasaia Lezo Lizeoa • Haurtzaro Ikastola Oartzun

Idazle gaztea A kategoria: *Poesia*

Kategoria honetan ez da saririk eman.

Idazle gaztea B kategoria: *Poesia*

Egilea: Izenburua	• Ikastetxea
1. saria Leire Jauregui Aizpurua: Jarraitu bidean	• Haurtzaro Ikastola Oartzun
2. saria Barroteen atzeko maitalea	• Itxaso Carrizo Pelaez • Haurtzaro Ikastola Oartzun
3. saria * Agurtzane Lekuona Agirretxe: Nire oroimenean Alaia Martin Etxebeste: Itsas Bareek xarmarik ez dutelako Unai Barrenetxea Bikandi: Bizitza eta heriotza	• Haurtzaro Ikastola Oartzun • Haurtzaro Ikastola Oartzun • Haurtzaro Ikastola Oartzun

* Hirugarren saria ex aequo banatuko da